

MUSKIZEKO LANGABEEK 2013KO URTALDIAN ZENBAIT TREBAKUNTZA JARDUERATAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA

Laguntzaren helburua: Langabeek edo enplegua hobetzeko egoeran dauden pertsonen hainbat trebakuntza jardueratan parte har dezaten sustatzea da helburua, batzuk lan-merkatuan txertatzeko aukerak areagotzearen eta besteak lanean hobetzearen.

Laguntzei dagokienez lan hobekuntzatzat honako egoera hauek joko dira: 1 urte baino gutxiagoko iraupen mugatuko lan-kontratuak, lanaldi partzialeko kontratuak eta aparteko pagen hainbanaketa barruan sartua dagoela hilean 1200€ baino gutxiago ordainsari garbia duten kontratuak.

Laguntzaren zenbatekoa: Ikastegi baimendun batean trebakuntza jarduera egiteko izena ematearen kostua zein materialena eta behar diren joan-etorrietako gastuak finantzatzearren laguntzaren gehieneko zenbatekoa 500€koa izango da pertsona eta urte bakoitzeko.

Baliabide ekonomikoak: Laguntzak osatzen dituzten funtsak mugatuak dira 2013. urteko aurrekontua izatearen mende daude eta.

Eskakizunak:

- a) Muskizen erroldatuta egotea 2012/01/01 baino lehenago
- b) Trebakuntza jardueran izena eman ahal izateko dagokion titulu akademikoa izatea.
- c) Trebakuntza zentroak zigilatutako izena emateko orria.
- d) NANaren fotokopia
- e) Lan kontratuaren eta azken hiru nominen fotokopiak, enpleguaren hobekuntza kasuetan.
- f) EABDren kopia (Eskaeraren Alta eta Berritzeko dokumentua)
 - Laguntza hau bateragaitza izango da beste Erakunderen batek helburu berarekin eman ditzakeen beste laguntza batzuekin.
 - Hizkuntzak ikasteko bideraturiko trebakuntza jarduerak laguntza hauetatik at geratzen dira.



Laguntzaren ordainketa:

Diru-laguntza zehazteko orduan, behin trebakuntza aldia amaituta, ikasleak trebakuntza amaitu duela joko da ondoko kasuetan:

- a) Trebakuntza jarduera amaitu dutenak eta ikastegira %75etan bertaratu direnak**
- b) Trebakuntza jarduera hasita lana aurkitzeagatik ikastegira joateari utzi behar diotenak. Kasu horretan diru-laguntza hartzeari begira jarduera amaitutzat joko da baldin eta gutxienez trebakuntza jardueraren %25 gauzatu badute.**

Trebakuntzara joango diren eta garraio publikoa erabiliko duten pertsonen gehienez ere 1,5€ko laguntza edukitzeko eskubidea izan ahal izango dute egun bakoitzeko baldin eta joan-etorritakoa hiri-barrukoa bada eta 5€koa hiriartekoa denean. Hiriarteko garraio publikoa erabiltzekotan joan-etorriko txartelen kostu osoa kobratzeko eskubidea izango dute, horretarako egindako gastuari dagozkion frogagiriak (txartela, abonua, etab.) gorde behar izango dituzte.

Trebakuntza jardueraren ordutegia eta hiriarteko garraio publikoarena bat ez badatoz norberaren ibilgailua erabiltzea diruz lagunduko da. Laguntzaren zenbatekoa 0,19€koa izango da egun eta kilometro bakoitzeko, 20€ko mugarekin.

Ikastorduak goizez eta arratsaldez badira eta langabearen ohiko bizilekuaren eta ikastetxearen arteko joan-etorritakoak 50 kilometroak badira edota hortik gorakoak, ikasleak gehienez 12€ko mantenu-ordaina kobratzeko eskubidea izango du ikastegira bertaratutako irakastegun bakoitzeko.

Joan-etorrietako gastuak ordaintzeari ekin ahal izateko, kasu guztietan beharrezkoa izango da jardueraz arduratzen den Zentroak eginiko ziurtagiria non zehaztuko den ikastegira bertaratutako egun guzti-guztiak zeintzuk izan diren.

Trebakuntza jardueraren ordainketari ekin ahal izateko, kasu guztietan beharrezkoa izango da jardueran onuraz parte hartu dela eta gutxienez ikastaroko irakastorduen %75etan bertaratu dela ziurtatzen duen ikastegiak eginiko egiaztagiria edota dagokin titulua aurkeztea.

Laguntzak eskatzeko epea 2013ko abenduaren 30ean amaituko da eta bakarrik 2013. urtean eginiko ikastaroetarako izango dira.